



600 LAGUN ERNIOPEKO VI. MENDI IBILALDIAN

Igande honetan izango da Erniozaleak Kultur Elkarteak antolaturiko ibilaldia; bi ibilbide egongo dira aukeran >5

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Osteguna
2008-05-08

VI. URTEA 1.428. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Denden eta enpresen egoerari bultzada emateko ekimena abian da

LEITZA Azken 10-15 urteetan 23 saltoki eta enpresa itxi dituzte herrian; Egoera «zaila» dela diote dendariak

ELKARTEA Cederna-Garalur eta Udalak deituta, bilerak ari dira egiten dendariekin, elkarteak sortu ala ez aztertzeko 7



Txirriinduen gainean ibili ziren atzo haurrak zein gurasoak. A. IMAZ

GAZTETXOAK GUSTURA ESKOLAREN ASTEAN

LIZARTZA Ekitaldi ugari ari dira gozaten aste honetan; gaur, Abaltzisketa eta Ikaztegietakoa haurren bisita izango dute 6

Mobilizazio Eguna gaur, «salbuespen egoera salatzeko»

POLITIKA Ino Galparsoro Arrasateko alkatearen espetxeratzea salatzeko deitu ditu gaurko protesta ekitaldiak ezker abertzaleak; eskualdean hainbat herritan egingo dituzte 4

hitza info

elastiko berriak salgai
haur, gazte eta helduentzat

elastikoarekin
poltsa opari!

Tolosako
HITZAren
bulegoan
eskuragarri.

Harpidedunentzat
%25
merkeago

ceinpro

**Disenau eta krazioahalmenean
oinarritutako heziketa**

- **DISEINU ETA PRODUKZIO EDITORIALEAN GOI TEKNIKARIA**
ARTE GRAFIKOTAKO FAMILIA PROFESIONALEAN
GOI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOA
IRAILPENA - 2 ikasturte / 2000 ordu
SARPERA - UR - LH I - EE I - edo HEADL, BATXILERGIDA genditua
- **ARTE GRAFIKODEN AURRENPRIMAKETAN TEKNIKARIA**
ARTE GRAFIKOTAKO FAMILIA PROFESIONALEAN
ERDI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOA
IRAILPENA - 2 ikasturte / 2000 ordu
SARPERA - 2. DBB - LH I - EE I - edo DBH genditua

Herriz Presentzia, 20
50000 Donostia
Eskualdea
Tel: 943 210 879
Fax: 943 210 879
www.ceinpro.com

Laburrak**Txapin festako bazkarirako txartelak salgai daude**

GIZARTEA Hilaren 17an ospatuko da Txapin festa. Egun horretan Abastosen egingo den bazkari herrikoirako txartelak salgai daude jada. Hamar euro balio dute hauek eta Raku, Orbela, Meskal nahiz Denak tabernetan.

Ziklomotorren azterketa tekniko berria egingo da

TOLOSA Hilaren 26an eta 27an berriro etorriko da San Estebango Ferialekura, Eusko Jaurilartzako Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritzak baimendutako espazio mugikorra. Izan ere, motorrek ekainaren 30a baino lehen IAT-ITV'a pasata egon behar dute 3 urte baino gehiago dituzten edo matrikula 0-n bukatuta dutenen kasuan. Ordua hartzeko Udaltzaingora deitu behar da, hau da, 943 67 85 58 telefono zenbakira.

'Ryan's daughter' izango da ikusgai, Zine-Forumean

TOLOSA Aste honetako Zine-Forumean Ryan's daughter (Ryanen alaba) izango da ikusgai. Oraingon saio bakarra egongo da, 21:00etan hain zuzen ere. Filma 1906. urtean dago girotua eta Irlandan kokatua, ingelesan aurkako matxinadaren garaian. Landa ingururako irakaslea da Charles. Denboraldi labur bat Dublinen eman ostean, bere herrira itzuliko da, eta neskalagunarekin ezkondu. Bi Oskar irabazi zituen 1970ean filme honek.

Pentekosteko Gaubeila ospatuko da etzi iluntzean

GIZARTEA Etzi ilunabarrean, 20:30ean hasita, Pentekosteko Gaubeila izango da Tolosako Santa Maria parrokiaren. Bertako nahiz Ibarako Pastoral Barrutiko pastoralgile eta eliztar guztiztat dago zuzendua ospakizuna.

Tolosako Udala**IRAGARKIA**

Tolosako Udaltzat, 2008ko martxoaren 18an egindako bilera, hasierako onepena eman zion Hiri Ordenazioko Plan Orokorreko "15,2 Zubizarreta" eremu berriko Hirigintzako Egikaritze Hitzameneren proposamenari, Iturrioz Celaya eta Pagola Aguinagaldek aurkeztuari.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko Zazpigarren Xedapen Gehigarriko 8. apartatuaren arabera, espedientea zu egongo da jendaurrean jarrita, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarri hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesatutik daudenean egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkezteko.

Epe horrek dirauen artean, ikusi eta aztertu nahi duenaren esku egongo da espedientea Tolosako Udaltzako Hirigintzako Bulegoan, Plaza Zaharra, 6-B eraikinean. Alegazio edo erreklamazioak eraikin honetan bertan dagoen Santera Eregistro Orokorrean aurkeztu behar dira, Udaleko alkate-lehendakariari zuzenduta.

Hitzarmena behin betiko onartutaz joko da, alegaziorik ez bada aurkeztzen jendaurreko informazio epelidaren barruan.

Tolosan, 2008ko maiatzaren 8ean.

ALKATEA.

Haurrentzako nahiz helduentzako antzerkiak izango dira asteburuan

Tolosa La Mancha taldearen 'La olla' izango da bihar eta Txalo produkzioen 'Magia teilatuetan', etzi.

ERREDAKZIOA

Antzerkia gustuko dutenak zorteko dira asteburu honetan. Haurrentzako nahiz helduentzako emandak izango baitira Leidor antzokian. Gainera sarrera doakoa izango da batean zein bestean. Lehendabizikoa bihar izango da, 20:30ean. La Mancha antzerki taldearen eskutik, Almudena Sanchez Pascualen *La olla* antzezlanaren bertsioa ikusi ahal izango da. Bestalde, etzi, 17:00etan haurrentzako saioa izango da. Txalo produkzioak *Magia teilatuetan* lanaz gozatzeko aukera izango da.

Plautoren 'La olla'

Anade fundazioak ezintasun edo gaixotasun mentalak dituztenekin egiten du lan. Hauek gizarteratze eta lan munduan sartzeko helburuarekin. Xede hau lortzeko bi-



Magia teilatuetan antzezlanaz izango da haurrentzat, etzi. HITZA

dean, fundazioak antzerki talde bat osatu du Ciudad Realen (Gaztela Mantxa, Espainia).

1998an talde profesional gisa hasi ziren lanean eta Gaztela Mantxako antzerkien sarearen baitan daude. Euskal Herrian bost emandak eskainiko dituzte, Gasteiz, Eibar, Matiena, Tolosa eta Gernik.

Gauzatzen ari diren bira hone-

kin, ezintasunak dituzten pertsonak zer egiteko gai diren erakutsi nahi dute. «Baliabideak emanez gero hezitua izan bait daitezke, eta lan egiteko gai dira», diote La Mancha antzerki taldekoek.

'Magia teilatuetan'

Begoña Bilbaoren gidaritzapean arituko dira etzi Iraitz Lizarraga, Asier Kidam eta Jorge Santos.

Musika, dantza eta bertsoak izango dira 'Euskaraz bai' astean

Kultura Kontseiluaren urteurreneko ospakizunak Anoeta, Irura, Villabona eta Zizurkilen izango dira, bihar eta etzi bitartean.

ERREDAKZIOA

Kontseiluaren 10. urteurreneko ospakizunen baitan *Euskaraz bai* astea antolatu dute eskualdean. Hori dela eta euskararen inguruko hitzaldiak, antzerkiak, kontzertuak, kirol-lehiaketak, graffiti-erakusketak... egingo dira datozen egunetan. Ekimen honekin bat egin dute eta laguntzaile dira Galtzaundi Euskara Taldekoak eta Tolosaldeko zenbait herritako Udalak.

Ekitaldiei hasiera emateko, bihar, Villabonako Gurea Zine-eman Ertza taldekoek *Ostrukaren zuloa* dantza garaikideko emandak eskainiko dute. Ekitaldia 22:30ean hasiko da.

Ostrukaren zuloa lanean honako gogoeta hau egiten da: «beldurragatik benetan egitea nahi duguna alde batera uzten dugu, eta horren ordez nahi dugunetik gertu dagoen kontsolazio sari batekin konformatzen gara; eta batzuetan ezta hori ere. Hori dio behintzat autoreak».



Deabruak Teilatuetan taldekoek 1973, bere azken lana aurkeztuko dute. E. E.

Ekitaldiz betetako eguna

Etzi, hau da, larunbatean Anoeta, Irura eta Zizurkilen izango dira ekitaldiak. Alde batetik, Anoetan, 16:00etan, haurrentzako film bat eskainiko dute Udaletxean.

18:00etan, Irurako san Migel plazan, Trikuharri taldeak 1, 2, 3 *Inaxito* bertso antzerkia eskainiko

dute. Bertso-antzerki bizi eta atsegin honek haurren irudimena landu nahi du, sormena. Buruari eraginez zenbakiak bilatu eta aurkitu dituzte denen artean. *0,1,2,3,4,5,6,7,8 eta 9 gorde egin dira! Ondo gorde, gainera! Zein zenbaki da luze bezain argala eta sudur luze-luzea duena? Eta hanka luze,*

buruhandia? Istorio xelebreak nagingu.

Bertso, musika, kantu eta oso pertsonaia berezidun istorioak dira. Amaieran, haurrei irakatsi nahi zaie dena dela posible irudimena erabiliz; zenbakiak aurkitzea ere bai. Irudimena erabiliz bizitza politagoa dela.

Larunbat gauean berriz bi kontzertu izango dira. Lehendabizikoa Anoetako Gaztetxean izango da. 22:30etik aurrera, Deabruak Teilatuetan talde tolosarra izango da bertan. Hauek duela hilabete gutxi kaleratutako *1973* lana aurkeztuko dute. Deabruak Teilatuetan taldea 1990eko hamarkadaren hasieran sortu zen. 1973an jaiotako kide, lagun eta musika gogoko zuten lau gaztek osatu zuten taldea. 1998 urte bitartean 3 disko kaleratu zituzten, eta garai honetan, ikasketak edo lana zirela medio, beraien bideak bereiztu egin ziren. Honenbestez, bederatzitzi urtetan bananduta egon ondoren, ia zoko urrian lan berri bat beso azpian zutela itzultzea erabaki zuten.

Larunbateko bigarren kontzertua Zizurkilen izango da. Intxaurren frontoian, 22:00etatik aurrera Ken Zazpikoak izango baitira zuzendutako. *Argiak* diskoa kaleratu ondoren, eskualdean eskaintzen duten bigarren kontzertua izango da gernerikarrena. Energia handiko kantutegiak egin dituzte disko honetarako, oinarri indartsuekin, eta aldi berean, oso melodikoak.

Udalarena «arrazoirik ez duenaren, irainaren» bidea dela dio ezker abertzaleak

Zizurkil » Azken gertakari eta erabakiek «samina» sortu dietela eta Udalaren pausoak «herritarren aurkakoak» direla diote.

ERREDAKZIOA

Azken asteetako gertakari eta erabakiek «samina» eragin dietela azaldu dute Zizurkilgo ezker abertzaleak. Udalak hartutako bidea «arrazoirik ez duenarena, irainarena» dela diote.

Ezker abertzaleak gaineratzen duenez, «samina areagotu besterik ez dute egin hainbat komunikabideetan gure herriaren gainean eman diren informazioek, horrela deituz berri badago behintzat». Madrildik iritsi ziren «lehen zurrumuru eta erasoak, baina herriko Udala hartua dutenek eman dituzte ondorengo pausoak», zehaztu dute. Pauso horiek herritarren aurkakoak izan direla diote. Udalarena «arrazoirik ez duenaren bidea, irainarena» dela diote: «Iraina jotzen baitugu herritarrei zer gogoratu eta nola inposatzea. Iraina, erabaki hori hartu behar zutenean udaletxeko atek herritarrei ixtea

eta indar polizialek herria hartzea».

Ezker abertzaleak diotenez, «sentsazio bera» izan zuten iazko ekaianen, «herriaren borondateari bizkar eman eta, orduan ere polizia lagun hartuta, Udaletik kanpo utzi gintuztenean». Udal gobernuari elkarlana eskaini ziotela azaldu dute, «Zizurkilen alde lan egiteko borondate irmoa genuenez», baina salatu dituzte «trukean jaso duguna trabak, gezurrak eta irainak izan dira».

Geresta eta Arregiri buruz

«Minduta» daudela azaldu dute ezker abertzaleak, «Joxelu Geresta eta Joxe Arregi herriaren historiaren parte hartzen ditugulako, hil zituzten moduan hilda errespetu eta begirune gehiago merezi dutela uste dugulako, eurak ere biktimak izan direlako». Herriko bi plazei Gerestaren eta Arregiren izena aldatzeren erabakiarekin «euren senide eta lagunak ez ezik, herritar asko samindu dituzte eta euren adierazpenekin samin hori biderkatzea soilik lortu dute». Arregi bederatzi egun inkomunikatuta egon eta jasan zituen torturengatik hil zela «ahaztu egin zaie» galde-

tzen dute eta baita Geresta «zein egoeretan eta zein unetan agertu zen hilda» ere.

«Bizikidetzat lasaiaren aldeko» agertzen direla eta horretarako aukeratu duten bidea «herri borondateari uko egitea» dela leporatzen diete Udalari. «Etika eta errespetu hitzekin aho bete bai, baina iraina bide hartu dute», gaineratu dute. Ez dute ulertzen «herritarren alkate izendatzen denak komunikabideetan herritarrek iraintzea». Egunkari bati emandako elkarrizketan, Udal Gobernuak Zizurkil Goian bizi direnak «mes-tizaiaren aurkako», «pribilegiatu» eta «burgesak» direla esan dutela salatzen dute ezker abertzalekoek. Horrelakoekin «zein bizikidetzat mota bultzatu asmo duten» eta «zein izango den hurrengo iraina» galdetzen dute.

Gerestaren eta Arregiren plaza izenak zeramatzen plakak eta euren omenez jarritako oraitarrak desagertu badiren ere, «oraindik Joxe Arregi eta Joxelu Geresta plazek hor diraute eta horiraungo dute», zehazten dute, «herriak horrela erabaki zuelako, eta inposaketak herritarren oroimenean zer eginik ez duelako».

Laburrak

San Isidroko afaria egingo dute hilaren 15ean

ALKIZA » Hilaren 15ean, urtero ohien bezala, San Isidroko afaria egingo dute Ostatu Jatetxean, 21:00etan. Etxe bakoitzetik bi pertsonak parte hartu dezakete eta herrian errolatuta egon beharko dute. Beste inork parte hartu nahi izanez gero, guztia ordaindu beharko du. Izena emateko azken eguna hilaren 13a izango da eta Ostatu jatetxean bertan egin daiteke. Pertsona bakoitzak ordaindu beharrekoa 18 euro izango da.

Aiztondo II. Gutunen Lehiaketaren sari banaketa

ALKIZA » Aiztondo II. Gutunen Lehiaketaren sari banaketa egingo dute igande honetan Alkizako kultur etxean. 18:00etan hasiko da ekitaldia eta irabazle bakoitzak bere gutuna irakurriko du. Ondoren zizka-mizkaka izango da.

Play-Back jaialdirako izena emateko epea zabalik

ANOETA » Herriko jaietan egiten den Play-Back jaialdirako izena emateko epea zabalik dago. Hilaren 23an izango da ekitaldian, 19:00etan. Bi talde osatuko dira: LH6a arte eta DBH1etik aurrera. Taldekideen erdia baino gehiago herrikoak izan behar dira. Puntuatzeko garaian irizpide hauek hartuko dira kontuan: koreografia, jantziak, originaltasuna, play-back, kantak euskaraz izatea eta taldeak neska-mutilenak izatea. Izena emateko epea hilaren 16a arte da eta Jon Ander Odriozolaren dendan edo kiroldegian egin daiteke. Kantaren CDa eraman behar da.

Ezohiko osoko bilkura egingo dute gaur

ANOETA » Udaltzatzen ezohiko osoko bilkura egingo du gaur, udaletxean, 19:30ean. Besteak beste gai hauek jorratuko dira: Amnistiaren Aldeko Mugimenduaren aurkako auziari buruzko adierazpenaren onespena, 2006 urteko aurrekontuaren likidazioaren berri ematea eta Loatzeko Mankomunitateko estatutuaren aldaketaren onespena.

Sendabelarren ikastaroa antolatu du Udalak

ANOETA » Sendabelarren ikastaroa antolatu du Udalak maiatzaren 29tik uztailaren 3ra. Ostegunetan egingo dute eta bi ordutegi izango dira aukeran: 16:30etik 18:00etara edo 18:30etik 20:00etara. Prezio 30 eurokoa izango da eta ohiko murrizpenak izango dira. Izena udaletxean (943 65 12 00) edo kiroldegian (943 65 13 33) eman daiteke eta azken eguna hilaren 16a da.

Transportes Lakunzaren «porrot mingarria»

VILLABONA » Transportes Lakunza areto futboleko taldeak «porrot mingarria» izan zuen Euskal Sofa-UPVren aurka, 7-5 emaitzarekin. Billabonatarrek azaltzen dituzte, «zein daiteke esan epailearen erabakiegatik galdu genuela, baina emaitzen izan zuen bere eragina». Etxeko azkeneko partida etzi izango dute, 18:00etan, Olaederra kiroldegian, Durangoko Sasikoa taldearen aurka. Lakunzako jokalariek eskertzen diete animatzailea joan zirenei eta etziko partidara joateko ere dei egiten dute.

Gipuzkoako Txapelketan, lehen hirurak Danena-Olaederrakoak

Halterofilia » Teddy Martinez, Igor Sasiain eta Ekaitz Kortajarena izan ziren, hurrenez hurren, podiuma lortu zutenak.

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Halterofilia Txapelketan sailkapen orokorrean lehenengo hirurak Danena-Olaederrakoak izan ziren. Teddy Martinez izan zen txapeladuna, Igor Sasiain bigarrena eta Ekaitz Kortajarena hirugarrena.

Mailei begiratu, 56 kilokoan Adrian Sasiainek lehenengo postua lortu zuen. 69 kilokoan Igor Sasiain izan zen lehena, Ekaitz Kortajarena bigarrena eta Jon Sasiain hirugarrena. 77 kilokoan Angel Martin bigarrena izan zen eta Aritz Salaberria hirugarren. 85 kilokoan Teddy Martinez izan zen lehena eta Mikel Quintana laugarrena. 105 kilokoan Dani Legorburu izan zen lehena. 105 kilo baino gehiagoko mailan Jokin Urkizuk ere lehen postuan amaitu zuen.



Teddy Martinez txapeladuna ahalegin betean saio batean. HITZA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

berria

Kazetaritza praktikak egiteko bekadunak
hautatzeko probarako deialdia

PROBAREN EGUNAK ETA TOKIAK

GIPUZKOAN

Eguna: maiatzaren 20a
Tokia: Andoingo Martin Ugalde Kultur Parkea
Ordua: arratsaldeko lauretan.

BIZKAIAN

Eguna: maiatzaren 23a
Tokia: Leioako campuseko BERRITUTAKO ERAIKINA (Reformado) 1. gelan
Ordua: eguerdiko ordu batean

ARABAN

Eguna: maiatzaren 20a
Tokia: BERRIako Gasteizko egoitza, Bizenta Mogel 6, behea.
Ordua: goizeko bederatzita eta erdietan.

NAFARROAN

Eguna: maiatzaren 20a
Tokia: BERRIaren Iruñeko egoitza, Iratxeko monasterioa 45, eskuineko eskalera, 13. ezkerrean.
Ordua: goizeko 10:00etan.

Probara curriculuma ekarri behar da

S Soka motzean

«Landa-etxeak hiritik ihes egiteko bidea ematen du»

IÑAKI ETXEBERRIA

Apezetxea landa-etxeke jabea

NEREA URBIZU

Arruizten Apezetxea landa-etxea dauka (Alegia, 1978).

Landa-etxeena moda kontua da? Krisia nabaritzen al da?

Ez nuke horrela pentsatu nahi, ez zait iruditzen... Aurten urtar- rilean nabaritu da baina udarako eskaerak berriz badaude.

Eta zu oporretan zoazenean zer bilatzen duzu?

Mendialdekoa izanda, normalean kostaldea.

Zer aurkitzen du Arruizta doanak?

Lasaitasuna, natura. Hiritik ihes egiteko modu bat da, eta lagu- nekin elkartzeko bide bat. Etxe osoa alokatzen dut. Lorategia, bost gela, egongela billarrekin dauka...

Arruiztera joateko garairik onena zein da?

Nik udaberria esango nuke.

Nondik dator jendea?

Bizkaitarrak, iruindarrak, arabarrak eta gipuzkoarrak, orden horretan. Hiritatik hurbil dago Arruiz, ongi komunikatuta.

Txintxarria ala gezurritza?

Orain arte txintxarria, baina oraintxe gezurritza. Negozioaga- tik Nafarroan gehiago ibiltzen naiz.

Negozioagatik bakarrik?


Neska ere hemengoa bota dut... Koadrila majo bat ere badut.

Noizko landa-etxe bat Alegian?

Aita Abaltzisketakoa izanda, agian han jarriko dut [barreak].



N. URBIZU



'121 amu KOSTALDEA EZAGUTZEKO'

liburua

Maiatzak 10, larunbata
kartilla eta **1. kupoia**
berriarekin



«Salbuespen egoera salatzen» Mobilizazio Eguna antolatu dute

Politika » Arrasateko

alkatearen espetxeratzea salatzen hainbat protesta ekitaldi egingo ditu ezker abertzaleak.

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko ezker abertzaleak hainbat protesta ekitaldi antolatu ditu gaurko, Mobilizazio Eguna- ren baitan, Ino Galparsoro Arrasateko alkatearen espetxeratzeko salatzen helburuz.

Ino Galparsoro kartzelan sartzearen erabakia «PSOEek hartu duela, eta Garzonek tramitatu baino ez» duela egin adierazi nahi zian dute ezker abertzaleak. «Beraz, erabaki hau oso estrategia zahartzari, helburu politiko argiak dituen strategiari erantzuten dio, PSOEek herri honetako proiektu independentistarekin amaitzeko egin duen hautuaren baitan baino ezin dugu kokatu. Eta estrategia horretan noraino heltzeko gai den ikusi dugu: alderdien ilegalizazioak, zuzendaritza politikoak, bizi arteko espetxe zigorrak eta tortura basatiaz gain, herriak aukeratu duen alkate edota hautetsi bat espetxeratzeko gai ere badela, erakutsi nahi izan digute».

«Salbuespen egoera»

Ezker abertzalearen ustez, «salbuespen egoera hau ezin dugu ulertu EAJren oniritzirik, babesik eta laguntzarik gabe. Eta horren erakusgarria asteazkenean bertan Arrasaten bertan bitartean, Ertzaiz- tza herritarren manifestazioa kolpeka eragozten. Eta azken egune- tan ere antzekoak geratu dira. Ur- kulluk PSOERI laguntza osoa eskaini dio, PSOERekin akordioa lortzearen truk. Izan ere, biek ala biek ondo dakite, akordio hori egin ahal izateko ezker abertzalea kendu behar dutela paretik».

Gehitzen dutenez, «paretik kendu nahi gaituzte jakin badaki- telako ezker abertzaleak herri hau independentziaren atariraino eram- dezakeen proposamen politi- koa duela, herri honen lurraldetasun eta autodeterminazio eskubi- deak bermatu eta gauza ditzakeen proposamen politikoa duela eta, gainera, proposamen hori herriak bere egin dezan lanean eta borro- kan jarraitzeko determinazio osoa dugula».

Halaber, «EAJ eta PSOERen mozio etikoan bidez Garzoni bi- dea ireki baino ez diote egin, bidea

» EKITALDIAK

- **Aduna.** Elkarretaratzea egingo dute plazan, 20:00etan.
- **Amezketeta.** Elkarretaratzea egingo dute plazan, 20:00etan
- **Anoeta.** Elkarretaratzea egingo dute plazan, 19:30ean.
- **Ibarra.** Giza katea egingo dute, plazatik abiatuta, 19:30ean.
- **Ikaztegieta.** Elkarretaratzea egingo dute, 20:30ean, udaletxearen aurrean.
- **Tolosa.** Elkarretaratzea egingo dute Trianguloan, 20.00etan, «Salbuespen egoerari stop» esateko.
- **Villabona.** Bailarako manifesta- zioa egingo dute, 20:00etan, plaza- tik abiatuta.

erraztu diote, eta gure alkateak errepresioaren dikan kokatu dituzte. Eta horregatik gaur inoiz baino argiago esan nahi dugu EAJ ere badela Inoren espetxeratzeko eta etor daitezkeen eraso- en erantzule, eta EAJrekin batera es- trategia hau bere egin duten alder- dietako zuzendaritzak», azaltzen dute.

«Aldaketa politikoaren premia»

Ezker abertzaleak dioenez, «sal- buespen egoera honek, inoiz baino ageriago uzten du aldaketa politi- koaren premia, eta ahaleginak egingo ditugu, hain zuzen horixe zen gure mozio propioa aurkeztu- ta bilatzen genuena, eta ikusi dugu nola Garzoni, eta PSOERI ez zaien batere gustatu gure hautua». Hala, mozioan benetako aldaketa politi- koaren gakoak mahai gaineratzen direla adierazi dute, «baita gatazka politikoa gainditzeko askatuko be- harreko korapiloak zeintzuk diren argi eta garbi adierazi ere».

«Errepresioa antzua da gurekin amaitzeko»

Bestalde, argi utzi nahi izan dute, «ezker abertzaleak urte hauetan guztietan zerbait agerian utzi bal- din badu zera izan dela: errepre- sioak min eman arren, errepresioa antzua dela gurekin amaitzeko. Zapatero eta Rubalcaba berriro erratuko dira bide honen ezker abertzalearekin akabatzea lortuko dutela bertan badute, bere au- rreko guztiak erratu diren bezala- xe».

Ezker abertzalea herri honetan oso sustraituta dagoen errealitatea dela gaineratzen dute, «erro oso indartsuekin, kimu berriak sortze- ko izugarriko gaitasunarekin gai- nera».

600 lagun espero dituzte igandeko Erniopeko VI. Mendi Ibilaldian

Alkiza » Berritasunen artean ibilbide motza izango da, 25 kilometrokoa hain zuzen. Bietarako ere prestaketa behar da.

NEREA URBIZU

Erniopeko zortzi herrien arteko VI. Mendi Ibilaldia datorren igandean izango da. Dagoeneko 150 lagunek eman dute izena ibilbide luzea egiteko, eta 65ek, berriz, motzerako. Erniozaleak Kultur Elkarteak, hala ere, aurten 600 lagun biltzeko ere prest dago. Mikel Maiz kideak esan bezala, «laguntza handia daukagu horretarako, zortzi herri gaude honen baitan eta moldatzen gara». Normalean 250 mendizale inguruk hartzen dute parte ibilaldi neurtu honetan.

Alkizatik abiatuko da aurten, hori txandaka egiten baitute, urtero aldatuz joaten da. Aurtengo berritasunen artean, ibilaldi motza dago. «Bi ibilaldi izango dira, beti egiten dena, luzea 49 kilometrokoa eta berria, motzagoa, 25eko». Azkeneko hau egiteko bost ordu eta erdi inguru behar dira eta luzea egiteko, berriz, 11 inguru. Bietarako ere, «prestaketa behar da, gogorak baitira biak».

Zortzi herrien arteko lana

Aurten VI. Mendi Ibilaldia antolatu du Erniozaleak Kultur Elkarteak. Ernio mendia zortzi herri inguratzen dute, eta helburua hori da: «Inguru hori ezagutzera ematea». Ibilbide luzeaginez gero-ig-



Erniopeko V. ibilaldian, Albizturko plazako homidura gunean jendea indarrak hartzen. HITZA

roko dituzten zortzi herriak Alkiza, Larraul, Asteasu, Aia, Errezil, Bidegoian, Albiztur eta Hernialde dira. Herri hauen lana handia da, baina oso ondo antolatuta daude.

Bi ibilbideak «gogorak»

Ibilbide luzeak 50 kilometro inguru ditu eta motzak 25, baina «biak dira gogorak». Alkizatik Larraul aldera egingo dute luzea. «Urte batean alde bateraka egiten dugu, eta bestean beste alderaka. Aurten, Larraul alderako urtea da».

Aurten Aralarako 14 orduen urtea da ere, baina Maizek esan bezala, «ez du eragin txarra ibilaldian, kontrakoak: jende gehiagok hartuko du parte. Ibilbide motza horre-

tan pentsatzen egin genuen, jendea entrenatzeko. 600 bat lagun espero ditugu». Beste mendi ibilaldietan ere «parte-hartze handia izan da: Aizkardikoan, Andoain-goan»...

Ibilbide motza Alkizatik hasi eta Erniorantz joango da. Handik Errezil aldera joko dute, Bidegoiandik pasata Albiztur aldera Hernialderaino, eta Alkizan bukatzeko. 2.000 metroko gorabehera dago ibilbide honetan, eta 08:00etan aterako dira Alkizatik. Beraz, bazkaltzeko etxean egon daitezke mendizaleak. Ibilaldi luzeak 43 kilometro garai bateko herri bideetatik doaz, eta asfaltoan 7 kilometro inguru.

Aian salda, yogurtak eta halakoa daude urtero eta aurten ez dira faltako. Bidanien beste homidura gunea izango da jaki eta edariek. Halere, norberak etxetik zerbitu eramatea ere gomendatzen dute, ordu asko baitira oinez.

Erniopeko mapa erliebean

Aurten hiru euro ordaindu behar du parte-hartzaileak: «Prezio sinbolikoa da. Orain arte ez zen ezer ordaindu behar, baina horrek proba bukatzen dutenentzat, zortzi Udaletxeen laguntzaz, Insa-lusen, Kaikuren eta Aralar Kirolaren laguntzaz Erniopeko mapa erliebean banatuko dugu». Honekin batera, *Sua* edizioak *Euskal Herria*

aldizkarian Erniope buruz egindako erreportai ederra ere oparituko zaio mendizaleari. «Aldizkari hauek *Sua* edizioak oparitu dizkigu guri». Beraz, badu mendizale eta mendigoizaleak beste arrazoit bat igandeko proba egiteko. Aukerara polita da Erniope inguruak ezagutzeko eta oroigarri dotorea eskuratzeko.

Ramon Lasa omendu nahi izan dute aurten. Albizturko alkate zena elkarteko kidea zen

Bukatzeko, 18:00ak aldera zortzi opari banatuko dituzte ibiltari erregularrenak sarrituz eta bakoitzari opari berezi bat emango diote.

Aurten, Lasa zenaren omenez

Aurten Erniope Elkarteak Ramon Lasa Albizturko alkate zena omendu nahi izan dute ibilaldiarekin. Elkarteko kidea zen Ramon Lasa albizturtarra.

Ernio Kultur Elkarteak hainbat ekitaldi egin izan ditu urtean zehar, esaterako, borda eta gurutzearen berreraiketa, erromeriak, gurutzearen eraikitzaileei omenaldia, eta beste hainbat gauza.

Izen-ematea igandera arte

Igandera arte dago izena emateko aukera eta bide daude: alde bate-tik, Alkizako udaletxera deituta (943 69 02 35) eta bestela igandean bertan ibilaldia hasi baino ordubete lehenago.

Irteeran txartel bana emango zaio parte hartzaile bakoitzari. Txartel hau kontrol postu gutzietan zigitatu egin beharko da eta bertan seinalatutako ordutegiaren barruan. Ibilbidea ezingo dute 16 urte baino gutxiago dutenek egin.

txokoa h



4 sarrera pare zozketatu ditugu!

BRUESA GBC
Plus Pujol Lleida

OSTIRALA

MAIATZAK 9 - 20:30

ILLUNBE

Hauek dira irabazleak:

- Pablo Otegi (Zizurkil)
- Kontxi Suso (Villabona)
- Jose Antonio Azkue (Tolosa)
- Axun Alkorta (Tolosa)

HITZAren harpidedunentzat abantailak

Sarrerak HITZAren Tolosako bulegoan izango dituzue!



Gizarte parte-hartzeari buruzko prestakuntza-ikastaroak

Tolosaldea

Maiatza, Asteartea 13, asteazkena 14 eta osteguna 15.
19.00etatik 21.00etara Tolosako Antonio M. Labaien Kultur Etxean.

Urola Garaia

Maiatza, Asteartea 13, asteazkena 14 eta osteguna 15.
19.00etatik 21.00etara Zumarragako Zelai Aris5 Kultur Etxean.

Izen emateko:

Ordu

Itat

Seta

943 25 10 05

partehartu@baketik.org

www.baketik.org

Laguntza:

Antolatzaile:

Partehartzaile:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputazioa Foru de Gipuzkoa

kultura politikoa berria
www.kulturapolitikoa.com



Haur eta guraso ugari bildu ziren bizikleta gainean etzi, herrian barrena itzulida egiteko asmoz. ASIER IMAZ

Ikaztegi-tako eta Abaltzisketako haurren bisita gaur Eskola Astean

Lizartza » Bizikleta martxa, tailerrak, jaialdia eta Puntu Txapelketa ospatu baldin badira ere, ekitaldi ugari geratzen dira oraindik.

Gaur eta bihar zer?

Gaur Abaltzisketa eta Ikaztegi-tako eskoletako lagunak iritsiko dira Lizartzara. Goizean jolas egin ondoren, arratsaldean jaialdian izango dira. 19:00etan berriz kultur gu-

nean filma ikusteko aukera edukiko dute denek.

Bihar amaituko da aurtengo Lizartzako Eskola Astea. Azken ekitaldirako egun pasa antolatatu dute denen gozamenarako.

ASIER IMAZ

Eskolaren Astea ospatzen ari dira Lizartzan. Ekitaldiak astelehenean hasi ziren eta bihar egingo dute azkena. Bien bitartean, haurrak jolasetik jolasera dabilta, batzutan korrika eta bestetan bizikletaren gainean. Eskuak ere ez dituzte geldirik eduki Eskolaren Astearen baitan, batzutan eskulanak egiteko erabili dituzte eta bestetan Puntu Txapelketako aleak kontatzen.

Asteartean bizikleta martxa egin zuten herrian barrena, atzo berriz jaialdia eskaini zien herritarrei.



Astelehenean eskulanak egin zituzten frontoian. HITZA

Iragarki laburrak

LANA

■ **Iturgina.** Iturgin lanetarako pertsona behar dugu. 685 22 70 58.
■ **Sukaldaria.** Sukaldari bat behar da Tolosaldeko jatetxe baterako. Kartan ohitua, jornada erdia eta igandeetan jai. 606 61 52 93.
■ **Sukaldari laguntzailea.** Sukaldari laguntzailea behar da Villabonan. 653 74 10 91.

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Tolosa erdian bi logelako etxea salgai, egoera onean, oso merkea. 665 70 86 35.

ALOKAIRUA

■ **Baserría.** Baserría hartuko gure ke errentan bi lagunek. Deitu ondorengo telefono zenbakira: 656 70 38 14.

@ Bideoak. Sartu zaitze gure webgunean eta bideoak atal berrian Tolosaldeko eta Leitzaldeko hainbat ekitaldi erakargarrietako bideoak ikusi ahal izango dituzu. Esate baterako, eskualdeetako herrietako inauteriak, jaiak, deialdiak, Abiadura Handiko Trenaren inguruak, Udal bilkura bereziak... Dagoeneko 12 gai desberdinetan saikatuak daude orain arteko 30 bideoak. Sar zaitze eta gozatu gure webguneak ematen dizun aukera berri honekin:

www.tolosaldeko-hitza.info



Belabieta gimnastika erritmikokoek emanaldia eskaini zuten Berrobin. A. IMAZ

Gimnastika erritmikoa Berrobiko Kultur Astearen baitan

A. IMAZ

Berrobiko XVIII. Kultur Astearen barnean Belabieta gimnastika erritmiko taldearen emanaldia ikusteko aukera egon zen atzo arratsaldean. Horretaz gain, Felix Garridok sukaldaritza erakusketa eskaini zuten Bide - Ona Elkartearen bertan egin ziren platerak zozketa egin zirelarik.

Kultur Astea igandean amaituko da eta lau egun hauetan ekitaldi ugari egongo dira Berrobin. Gaur Idoia Sanchez liburutegian egongo da 17:00etan, bertara gerturatzaren direnei ipuinak kontatzeko asmoz. Ondoren, 18:00etan, I. Eskoba Txapelketa ospatuko da Solastokian.

» EGITARAUA

Maiatzak 8, gaur

■ **17:00etan.** Idoia Sanchez ipuin kontalaria liburutegian.
■ **18:00etan.** I. Eskoba txapelketa.

Maiatzak 9, bihar

■ **17:30ean.** Ikasleen emanaldia.
■ **Ondoren.** Literatur lehiaketako sari banaketa.

Maiatzak 10, larunbata

■ **09:00etan.** Mendi martxa.
■ **16:00etan.** Mus txapelketa.
■ **18:30ean.** Toka txapelketa.
■ **22:00etan.** Angel Magoaren eskutik magia saioa.

Zailtasunekin jarraitzen du Patxi Zeberio

Erremontea » Altuna anaiak gaur jokatuko dituzte euren partiduak Hernaniko Galarreta pilotalekuan.

A. IMAZ

Patxi Zeberio emaitza onik lortu gabe jarraitzen du. Apirilean Ezkurra izan baldin bazuen berrero, etzi San Miguel gailendu zitzaion sakez 12 tantu lortu ostean.

Altuna anaiak bere aldetik, gaur jokatuko dituzte euren partiduak.

17 tantu egin eta 8 galdu

Zeberio II.ak ez zuen partidu txarra egin baina emaitzei begiratuta bolada txarrean aurkitzen da elduindarra.

Partidak protagonista San Miguel gaztea izan zen. 12 tantu lortu zituen sakez eta Agirrezabalak airean ibili zuen atzeko kuadroetan.

Patxi Zeberioaren atzelariaren enperaturik, aurreko kuadroetan elduindarraren pare ibili zen Urri-za, 14 tantu egin zituelarik.

Amairan 33-40 galdu zuten Zeberio - Agirrezabalak. Elduaindarrak 17 tantu egin zituen, 8 pilota galdu zituelarik.

Altuna anaiak gaur Galarretan Hernaniko (Gipuzkoa) Galarretan erremonte jaialdia jokatuko dute gaur 16:00etatik aurrera. Bertan Amezketako Altuna anaiak partiduak jokatuko dituzte.

Altuna II.ak Lizaso lagun duela, Ezkurra eta Badiola izango dituzte arerio. Jaialdiko bigarren partidua izango da eta 40 tantura jokatuko da.

Altuna I.ak bere aldetik, Eizagirre izango du lagun, Bitoria eta Etxeberria III.a arerio dituzten bitartean. Hauen partidua jaialdiko hirugarrena izango da eta 40 tanturara jokatuko da.

Herriko dendeekin zer?

Leitza » Azkeneko urteetan 23 saltoki eta enpresa itxi dira herrian eta pare bat bilera egin dituzte elkarte bat sortu nahi duten ala ez ikusteko.

NAIARA GARZIA

Azken 10-15 urteetan 23 saltoki eta enpresa itxi dira Leitza. Egoera honen aurrean, duela zenbait aste Elena Irigoyen Cederna-Garalurreko garapen teknikariak eta Leitza Udalak herriko saltoki eta enpresen bilera bat egiteko proposamena egin zieten, inguruko zonaldeetan bezala elkarte bat sortzeko. Dagoeneko 2 bilera egin dituzte.

Merkataritza buruz gogoetan

Hori dela eta, herriko saltokiak Leitza denden egoeraren ingurugogoa egin dute, aurrerabegira zer egin daitekeen ikusteko. Elkarte bat sortzeko erabakirik hartu ez duten arren, beste bilera bat egin dute datorren astean. Egoera, ordea, «zaila» dela onartzen dute.

Mari Sol Rodríguezek urte asko daramatza Garbi drogerian. «Jendeak ordutegiak ez dauzkanahi dituen bezala eta kanpoan erostera ohituta dago. Publizitatea ere denda handi horiek egiteko aukera ikaragarria daukate. 2 edo 3 gauza jendea erakartzeko jartzen dituzte eta ikusita dago beti beste zerbaite ere hartzen duzula, behar ez duzuna ere, eta hori guri ere gertatu zaigu». Rodríguezek ustez, azkeneko urteetan salmentak asko jaitsi dira. «Ikusi besterik ez dago zenbat denda itxi diren, eta horrek niri sekulako pena ematen dit herri honen zeuzkan dendeekin». Honetaz gain, elkartearen ideia ez duela argi ikusten dio. «Aspaldiko urteetan horrelako zerbaite egin genuen, 2 edo 3 elkarte ginen gehienbat ordutegi aldetik adostasun batetara iristeko eta pixka bat ibili ginen, baina nik ez dut oso oroimen ona eta partikularki ni ez nintzateke sartuko, baina pentsatzen dut aukera bat dela, jende gazte asko dago eta onerako izan daitekeela».

Juanenea 1932. urtean ireki zuten eta Imelda Larrazek ere azkeneko urteetan salmentek bera egin dutela dio. «Aurten bereziki asko sumatzen da. Azkeneko urteetan denda mardoska itxi dira baina nik uste leku guztietan gertatzen dela. Ni gaztea nintzenez zeuden Aienea, Peustenea, Lizarraga, Koxme, Pakona eta Sariton denda, Fondan ere izaten zen denda, baita Uhartenen ere. Denda asko izandu ziren lehenago. Ez dakit deus handirik egin daitekeen».

Udaletxean egin zuten lehenengo bilera, besteak beste Doneztebeko elkarteak ordezkaritza etorri zen, bertako elkarteak nola funtzionatzeko duen azaltzeko, baina Denontzat dendako Sagrario Zabalearen ustez, «hemen egoera ezberdina da. Donezteben beharbada elkarteak ongi funtzionatu du, bertara inguruko herri guztietatik jendea erostera joaten baita aspalditik, baina hemen ez da hori gertatzen».

Saltoki berriagoak

Arantxa Mariñelarenak 5 urte daramatza Belardenda Belarraren kargu. «Belar denda hartu arte ez nintzen oso kontziente egoera zein zen, baina ikusten dut herri batean dendak ez badaude herria hiltzen doala eta jendea ez da oso kontziente horrek zer garrantzi duen. Gauza asko kanpoan erosten ditugu, zer egiten ari garen jakin gabe. Ez hobea erosten dugulako edo merkeagoa, erosotasunarengatik, edo dena dela. Nik uste kontzientzi falta dagoela zentzu horretan». Elkarte bat sortzeari dagokionez, beraien interesak aurrera eramateko «ona» izan daitekeela dio Mariñelarenak. «Lagunak izan daiteke, baina zaila, lana egin behar baita eta horretan konpromisoa hartu behar da, bilera egin behar dira, eta gauzak an-



Urkiola zapata-denda duela zenbait urte itxi zuten eta Kaia arrandegia, Peustenea, Trikota eta Juli mertzariak... N.G.

tolatu behar dira, hau da, lana egin behar da... hor dago kokka. Kapri-txo dendako Juani Goikoetxeak ere zerbaite egitea «polita» litzatekeela dio, «baina ez dakit nola».

Nerea Gonzalezek duela 10 urte ireki zuen Bitxi-Lore loradenda. «Hasieran ilusioarekin hartu nuen, baina orain ilusio hori galdu egin dut neurri batean, jendea ez dudalako oso animatuta ikusten,

beharbada. Gero asko gara, 100 in-behar da... hor dago kokka. Kapri-txo dendako Juani Goikoetxeak ere zerbaite egitea «polita» litzatekeela dio, «baina ez dakit nola».

Duela 5 urte Mikel Zabaletak Peritza taberna ireki zuen eta bera ere uste berekoa da. «Herriko egoera nahiko gelditua ikusten dut, baina leku gehienetan bezala. Nik saiatu nahi dut, iruditzen zait interesgarria izan daitekeela, ea jendea animatzen dugun pixka bat gehiago herrian inbertitzera edo herrian gauzak egitera».

«Herriarengatik»

Honetaz gain, jendea «ezkor» dagoela dio. «Bileretan nabaritzen da, baina ez dugu deus galdu behar saiatzeagatik. Ni behintzat baikor nago, oso ideia ona iruditu zitzaidan. Hemengoak gara, eta niri gustatzen zait herria bizirik dagoela sentitzea, azkenean herri bat gara eta mugimendua egotea interesatzen zaigu eta herriari ongi heldu bazaio, seguru komertzioari ere bai. Lehenengo bileran esan nuen, Doneztebeko neskak esan zuena, ez dut pentsatzen beharbada salmenta gehiago lortuko ditugunik, baina gutxienez mantentzen bada orain dagoena, hau da, hemendik aurrera ez badira negoziok isten, zerbaite irabazi izanenu dugu, hori uste dut behintzat».

ELKARTEAREN IDEIAREN NONDIK NORAKOAK

Leitza elkarte bat sortzeko ideia Elena Irigoyen Cederna-Garalurreko garapen-agenteari bururatu zitzaion, azkenaldian Beran, Lesakan eta Donezteben merkataritza elkarteak sortu direla ikusita.

«Hemen ere zerbaite egin behar zela pentsatu nuen», dio Irigoyenek, «hemengo merkataritza mantentzeko. Udalarekin hitz egin nuen eta oso interesgarria iruditu zitzaion». Orduz geroztik 2 bilera egin dituzte. «Ni, Cedernaren bidez, Baztango, Malerrekako eta Bortzirietako garapen-agentekin kontaktuan jarri nintzen eta hango elkartearen prozesua aztertzen genuen». Lehenengo bileran 27 pertsona elkarte ziren, herriko saltoki eta enpresetakoak eta kanpotik ere zenbait pertsona etorri ziren, besteak beste, Arantxa Arregi, Malerrekako eta Bortzirietako garapen-agentea, Ixabel Elizalde, Doneztebeko merkataritza elkartearen kidea eta Elixabet Azkarate Nafarroako federazioko kudeatzailea. «Lehenengo egunean informazioa eman zitzaion: zer den elkarte bat, nola sortzen den...». Bigarren bileran 14 pertsona elkarte ziren, eta datorren astean beste bilera bat egingo dute. «Azkeneko planteamendua da jendea biltzea Udalaren eta nire laguntzarekin, baina garbi izan behar dute elkarte beraiek sortu eta mantendu behar dutela, guk hasieran laguntza tekniko eman arren».

Hilberria

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

RICARDO MENDIETA

Jauna

Maiatzaren 7an zendu zen, Tolosan

ELKARTUKO GAREN
ESPEROAN,
LAGUNARTEAN
BABESTUKO GARA GU DENAK

Aritz eta Ireneren lagunak

TOLOSA
2008ko
maiatzaren 8a



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Kultur Asteak eta festak

■ **Berrobi.** XXIII. Kultur Astea: 17:00etan, Idoia Sanchez ipuin kontalariaren saioa liburutegian; 18:00etan Solastokian I. eskoba txapelketa.
■ **Tolosa.** Harri Jaia Badaion: 11:00etan meza; ondoren, hamai-ketakoa elizako plazan (eguraldi txarra eginez gero, Artubi elkarte-an); 14:00etan bazkaria Artubi elkarte-an; ondoren, Joxe Agirrerekin eta Mañukortarekin bertso saioa; 21:00etan afaria Artubi elkarte-an.

Deialdiak

■ **Alkiza.** Hilaren 11n Erniopeko VI. Mendi Ibilaldia izango da Alkizatik abiatuta. Bi neurri: 48 km eta 25 km. Izen-ematea, 943 690235 telefono zenbakian edo Alkizako plazan ibilaldiko egunean bertan, 05:00etan. Antolatzailea: Erniozaleak kultur elkarte.
■ **Alkiza.** San Isidro Egunean (maiatzak 15) argazki rallya antolatu dute. Izen-ematea, herriko hiru tabernetan 12 eurotan (12 urtetik beherakoek, 6 euro).
■ **Anoeta.** Koadrilen Eguneko baz-

karia eta afaria maiatzaren 17an, frontoian. Izen-ematea, Itzuli edo Buztina tabernetan 7,5 eurotan.
■ **Berastegi.** San Isidro egunean eguerdian pilota partiduak, meza eta ondoren bazkaria izango da bertsolariekin Gaztainondo Jubilatuen Elkarte-an. Bazkarirako izena eman behar da bertan.
■ **Ibarra.** Festa Batzordearen bilera udal batzar aretoan 19:30ean San Bartolome jaiak prestatzeko.
■ **Tolosa.** Gizarte parte-hartzeari buruzko prestakuntza ikastaroak doan Antonio Maria Labaien kul-

tur etxean hilaren 13, 14 eta 15ean, 19:00etatik 21:00etara. Izen-ematea, Baketik (943 251005, www.baketik.org, partehartu@baketik.org). Antolatzailea: Baketik.
■ **Tolosa.** Herri Urratserako autobus antolatu dituzte hilaren 11n. Izen-ematea Galtzaundiko egoitzan izango da, 08:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.
■ **Tolosa.** Eduardo Mokoroa Udala Musika Eskolak aurrematikula egiteko aukera zabaldu du egunero 10:00etatik 13:00etara.

Zinema

■ **Tolosa.** *La hija de Ryan* filma izango da ikusgai, zine forumean, Leidor aretoan, 21:00ean (saio bakarra).

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 67 60 13.
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunikuzinik.

A Agurrak



Zorionak!

Igor Aristondo.

Gaur bi urte. Zorionak eta bi muxu. Igor eta Elena.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

berriak 5 urte

Zatoz
gurekin ospatzera!

Eskualdez eskualdeko ekitaldiak

- BERRIAK 5 urte. Bideoa
- Hitzaldia. Aurrera begirako erronkak
- Mokadua

TOLOSALDEKO EKITALDIA

Maiatzak 14, asteazkena, 20:00etan
Tolosako Kurtur etxean

berria

luzatu bostekoa



digitala
h
@

GAUR, osteguna, 18:00etan
ANTTON IZAGIRRE eta HEKTOR ESPIN
alkate ohia eta hautetsi independentistarekin
elkarrizketa digitala

HITZAren erredakzioan
izango dituzue zuzenean zuen galderak erantzuteko.
Aurrez ere zuen galderak bidal ditzakezue.

www.tolosaldeko-hitza.info webgunean

